

OINARRIZKO BALIABIDEAK

Animalien Erresuman gure negozioaren oinarriak eraikitzeko eta hobetzeko baliabide desberdinak erabili ditugu.

Ekarpena

Gure aurrezkiak erabili ditugu hasiera batean, eta irabazien zati bat berriro inbertitzen dugu zerbitzuak hobetzeko. Horrela, maskotentzako hotela berritu eta lepoko pertsonalizatueterako teknologia berriak gehitu ditugu. Gainera, gure familia eta lagunen laguntza jaso dugu, interesik gabeko mailegu txikiekin gastuak estaltzeko.



Bankuak

Laboral Kutxa eta beste banku batzuekin lan egiten dugu, mikrokredituak eskuratzeko. Hauek baldintza onekin eskaintzen dizkigute ekintzaileei. Banku tradizionaletan ere mailegu handiagoak eskatu ditugu, albaitaritza-ekipoak edo gure instalazioak hobetzeko.



Inbertsoreak

Foro Bizkaia bezalako ekitaldietan parte hartzen dugu, gure enpresa aurkeztu eta gure proiektua babestu nahi duten inbertitzaileak ezagutzeko.

Gainera, Menforsan-ekin lan egiten dugu, maskoten zaintzarako kalitate handiko produktuak eskaintzen dituen marka ezagun batekin. Honi esker, produktu onenak eskaini eta prezio justuak mantendu ditzakegu, maskoten ongizatea bermatuz.



Diru-laguntzak

Gauzatu Industria (SPRI) bezalako laguntzak eskatu ditugu, azpiegiturretan eta ekipamenduetan inbertitzeko. Ekintzaile Programa (SPRI) ere erabiltzen dugu, enpresaren lehen urratsetan laguntzeko. Gainera, mikrokredituak diru-laguntzekin baldintza onetan eskuratu ditugu gure negozioa hobetzen jarraitzeko.



Crowdfunding

Crowdfunding-a dirua biltzeko modu bat da, non proiektu bat aurrera eramateko behar den finantzaketa jende askoren ekarpen txikiei esker lortzen den; normalean, Interneteko plataformen bidez funtzionatzen duena. Gure enpresak denda online ez duenik, ez dugu erabiliko, baina etorkizunean, agian, erabiliko dugu.

